



ERREENTERIAKO UDALA

Giza Baliabideak

Erreenteriako Udaleko 2021erako lanpostuen zerrenda eta langileen plantila.

Udalbatzak, 2021eko apirilaren 27an eginiko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion Udalaren 2021eko Aurrekontu Orokorrari, zeinak Udaleko eta Erreenteria Musikal Udal Patronatuko langile-plantillak jasotzen baititu.

Jendaurrean egondako garaian inork ez duenez erreklamaziorik egin, behin-betikotasunez onartuta dago.

Beraz, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 127. artikuluan eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legeak 16. artikuluan jasotakoaren arabera, 2021erako Erreenteriako Udaleko lanpostu-zerrenda eta langile-plantila argitaratzen dira.

I eta II eranskinetan jasotzen dira 2021erako lanpostuen zerrendan eta langile-plantilan 2020. urtearekiko eginiko aldaketak.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsio jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtsio, dagokion Administrazio Auzietarako Auzitegian, bi hilabeteko epean, akordio hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren aurretik, berraztertzeke errekurtsioa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, akordio hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Erreenteria, 2021eko maiatzaren 21a.—Alazne Korta Zulaika, Antolaketa ordezkaria. (3557)

I. ERANSKINA

Lanpostuen Zerrenda (2021eko aldaketak)

2021erako Lanpostuen Zerrendan 2020. urtearekiko eginiko aldaketak (2020-01-17ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA) ondorengoak izan dira:

— Eguneratu dira berriazko osagarriaren zenbatekoak lanpostu guztietan.

— Antolaketa estrukturaren bigarren mailaren izena aldatu egin da: hau da, orain arte azpisailak deitzen zirenak orain departamentuak deituko dira.

— Departamentu eta zerbitzu batzuen izen aldaketak edota berriak jasotzen dira:

«Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT)» departamentua (lehen «Informatika»).

«Informazio Gizartea» departamentua (lehen «Modernizazioa, Informazio Gizartea eta Herritarren Parte-hartzea»).

«ZU! Herritarren Arreta» zerbitzua sortu da.

«Kontuhartzailatza» departamentua (lehen «Kontabilitatea, Administrazioa eta Zergen Ikuskaritza»).

«Udal Zergak» zerbitzua (lehen «Udal zergen kudeaketa»), orain Diruzaintza departamentuaren menpe dago.

* Lanpostu berriak edota dotazioen sorrera.

— GGBBko erdi mailako teknikaria (2409).

— Zergen administraria (3021): dotazio 1 sortu da.

— Kulturako administraria (4115): 2 dotazio sortu dira.

— Lekuonako liburutegiko teknikari laguntzailea (4139): lanpostu berri bat sortu da, 10 dotazioekin.

— Mugikortasuneko eta hirigintza zaintzako teknikaria (7305).

— Ikastetxeko atezaina (5219): dotazio 1 sortuko da ikastetxeko atezaina postuan (5218) dotazio 1 ezabatuta geratzen denean.

— Etxeetako laguntzailea (3): 2 dotazio berri sortu dira.

* Lanpostuen edota dotazioen ezabaketa.

— Informatikako goi-mailako teknikaria (2500): ezabatu egingo da hutsik geratzen denean.

— Zerga agentea (3024).

— Diruzaintzako administraria (3032).

— Kulturako administraria (4111): ezabatu egingo da hutsik geratzen denean.

— Kulturako administrari laguntzailea (4112).

— Liburutegiko laguntzailea (4138): lanpostua ezabatu da bere 2 dotazioekin.

— Liburutegiko urgazlea (4132): lanpostuaren bi dotazioak ezabatuko dira hutsik geratzean.

— Liburutegiko laguntzailea (4133): lanpostuaren 3 dotazioak ezabatuko dira hutsik geratzean.

— Administrari laguntzailea (5154.3): lanpostuaren dotazio hau ezabatuko da hutsik geratzean.

— Garbitzailea (5256).

— Hiri-jagoletzako koordinatzaile-laguntzailea (7112).

- Hezkuntza eta Gazteriako administrari laguntzailea (4303).
- Ikastetxeko atezaina (5218): dotazio 1 ezabatuko da hutsik geratzean.
- Etxeetako laguntzailea (1): 2 dotazio ezabatu dira.
- * Ezaugarriak aldatu zaizkien lanpostuak edota dotazioak.
- Liburuzaina (4130): Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren (SDEEZ) ziurtagiri negatiboa eskatzea.
- Liburutegiko urgazlea (4132): Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren (SDEEZ) ziurtagiri negatiboa eskatzea.
- Liburutegiko laguntzailea (4133): Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren (SDEEZ) ziurtagiri negatiboa eskatzea.
- Liburutegiko atezaina (4135): Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren (SDEEZ) ziurtagiri negatiboa eskatzea.
- Liburutegiko dinamizatzailea (4137): Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren (SDEEZ) ziurtagiri negatiboa eskatzea.
- Lekuonako Liburutegiko teknikari laguntzailea (4139): Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren (SDEEZ) ziurtagiri negatiboa eskatzea.
- Euskaltegiko irakasle-zuzendaria (4205): Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren (SDEEZ) ziurtagiri negatiboa eskatzea.
- Euskaltegiko irakasle-idazkari akademikoa (4206): Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren (SDEEZ) ziurtagiri negatiboa eskatzea.
- Euskaltegiko irakaslea (4207): Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren (SDEEZ) ziurtagiri negatiboa eskatzea.
- Sukaldaria (4305): Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren (SDEEZ) ziurtagiri negatiboa eskatzea.
- Ikastetxeko atezaina (5218 eta 5219): Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren (SDEEZ) ziurtagiri negatiboa eskatzea.
- Hezkuntza eta Gazteriako dinamizatzailea (4307): Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren (SDEEZ) ziurtagiri negatiboa eskatzea.
- GGBBko erdi mailako teknikaria (2408): lanpostua betetzeko baldintzak aldatu dira.
- Informatika teknikaria (2603). Lanpostu honek 2 dotazio zituen, baina orain 2 lanpostu ezberdinetan banatzen dira. Bat 2603 kodean mantentzen da baina izena aldatuz «Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) arduraduna» eta bestea 2607 kodean sortzen da, «Informatika teknikaria», Lanpostuen Zerrendan jasotako ezaugarriekin. Gainera, 2 lanpostu hauek Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) departamentura atxikitzen dira.

— Kultur dinamizatzaile-arduraduna (4113): lanpostuaren izena eta dedikazioarekin portzentaia aldatu dira.

— Kultur dinamizatzailea (4116): dedikazio berezia ezarri zaio.

— Liburutegiko dinamizatzailea (4137): lanpostuaren osagarri berezia aldatu da.

— Zuzendari-koordinatzailea (5110): lanpostua irekitzen da edozein Administrazio Publikoko karrerako funtzionarioak betetzeko aukera emanez.

— Iraunkortasuneko goi-mailako teknikaria (5143): lanpostua irekitzen da edozein Administrazio Publikoko karrerako funtzionarioak betetzeko aukera emanez.

II. ERANSKINA

Langileen plantila (2021eko aldaketak)

2021erako langileen plantilan 2020. urtearekiko eginiko aldaketak (2020-01-17ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA) ondorengoak izan dira:

A) Plazen sorrera:

1. Funtzionarioak:

— 3 administrari, C1 sailkapen taldekoak eta Administrazio Orokorreko eskalakoak, Administrari azpieskalakoak.

— 3 erdi mailako teknikari, A2 sailkapen taldekoak eta Administrazio Bereziko eskalakoak, azpieskala Teknikokoa eta Erdi Mailako Teknikarien klasekoak.

— 8 laguntzaile tekniko, C1 sailkapen taldekoak eta Administrazio Bereziko eskalakoak, azpieskala Teknikoa eta Teknikari Laguntzaileen klasekoak.

B) Plazen ezabaketa:

1. Funtzionarioak:

— Laguntzaile tekniko bat, C1 sailkapen taldekoa eta Administrazio Bereziko eskalakoa, Zerbitzu Berezietako azpieskala eta Betebehar Bereziak dituzten lanpostuak klasekoa.

— Administrari bat, C1 sailkapen taldekoa eta Administrazio Orokorreko eskalakoa, Administrari azpieskalakoa.

— 2 administrari laguntzaile, C2 sailkapen taldekoak eta Administrazio Orokorreko eskalakoak, Laguntzaile azpieskalakoak.

— 2 liburutegiko laguntzaile, C2 sailkapen taldekoak eta Administrazio Bereziko eskalakoak, Zerbitzu Berezietako azpieskalakoak eta Betebehar Bereziak dituzten lanpostuen klasekoak.

— Udaltzaingoko agente bat, C1 sailkapen taldean kokatua eta Administrazio Bereziko eskalakoa, Zerbitzu Berezien azpieskalakoa eta Udaltzaingoa eta Laguntzaileak klasekoa.

C) Ondoko lanpostuak iraungitzea deitzen dira:

1. Funtzionarioak:

— Goi mailako teknikari bat, A1 sailkapen taldekoa eta Administrazio Bereziko eskalakoa, azpieskala Teknikokoa eta Goi Mailako Teknikarien klasekoa.

— Zergen erdi mailako teknikaria, A2 sailkapen taldekoa eta Administrazio Bereziko eskalakoa, azpieskala Teknikokoa eta Erdi Mailako Teknikarien klasekoa.

— Administrari bat, C1 sailkapen taldekoa eta Administrazio Orokorreko eskalakoa, Administrari azpieskalakoa.

— Administrari laguntzaile bat, C2 sailkapen taldekoa eta Administrazio Orokorreko eskalakoa, Laguntzaile azpieskalakoa.

— 3 liburutegiko laguntzaile, C2 sailkapen taldekoak eta Administrazio Bereziko eskalakoak, Zerbitzu Bereziak azpieskalakoak eta Betebehar Bereziak dituzten lanpostuen klasekoak.

